

-2000-

2000ko urtarrilak 25

Poltsa beroa

Bero hauxe naun,
sei bat litro odol
hire ohea epeltzeko
ez beste ezertarako.

2000ko urtarrilak 26

Mutur bateko eta besteko iritziak entzun ondoren, egia erdian dagoela pentsatzeko tentaldia izaten dugu. Egirik ez izateak sortutako irudikeria baino ez da, ordea, hori.

2000ko urtarrilak 31

Itundu eta izutu egiten naute argazki zaharrek. Egia da, bai, zientifikoki frogatua dago, ez gaituztela argazkiek hiltzen, baina gure hilkortasunaren lepotik burla egiten digutela ezin izango dit behintzat inork ukatu.

2000ko otsailak 3

Asko maite duenak ezer ez du maite, zer maite duen ez badaki; eta asko dakienak ezertxo ez daki, dakiena maite ez badu. JosAnton Artzek esan eta gaurko egunkarietan jasotako hitzak dira. Horra hor, poeta baten ahoan, nire ezjakintasunaren eta bakardadearen erretratu ezin zehatzagoa. Horri esaten zaio bete-betean jotzea.

2000ko otsailak 15

Heriotza da gaitzik garbi eta osasungarriena.

2000ko otsailak 24

“Hi haut etxe mundu gero eta neguagoan.”

* * *

Bere sentikortasunik ezaren kausaz lotsaraino larriturik, ezer sentitu orduko –harrituta, miretsita, sinetsi ezinda–, berehala sentimendu horren idatzizko lekukotasuna ematera jotzen duen pertsona bihozgabea da, onenean ere, poeta. (Ikus 1997-VIII-12.)

2000ko martxoak 2

Ez da beti gozoa norberaren burua hedabideetan ikustea, ezta laudatua delarik ere. Batez ere, norberak bere buruaren estimua oso altua ez duenean. Min egiten du batzuetan.

2000ko martxoaren 27

Madarikatuak poeta onak, hain ongi esandako horiek hobetu ezinda utzi gaituztelako!

2000ko martxoak 28

- Non hil nahi zenuke?
- Lazkao Txiki hazi zen lekuan.

2000ko apirilak 8

Idatzi dudana idatzi izanak zer idatzirik gabe uzten nau askotan, nahiz eta behiala idatzi nuen horretaz oroitu ez. Barrua hustua dut, baina hori barruan nabari dut, ez inoiz barruan izandakoa orain kanpoan poz-emaile ageri zaidalako. Ez du axolarik barru horretatik erauziak kanpoan egindako bideak. Barruan utzi duen hutsarte da ederrena.

Zergatik ez ditu idazleak bere liburuak berrirakurtzen? Azaletik baino ez duelako maite idatzi duena. Idatzitakoak barruan utzi dion hutsarte da idazleak benetan maite duena.

2000ko maiatzak 7

Maite dut autobusaren edo trenaren zain egotea. Autobusaren edo trenaren zain nagoenean ez daukat zer egin nahi dudana, zer egin behar dudana edo zer egin dezakedan pentsatu beharrik. Ez daukat beste aukerarik. Ezta beste itxaropenik ere. Gainerako guztia –tarte horretan ikus edo entzun dezakedana, edo gerta dakidana ere– opari bat da.

2000ko maiatzak 8

Poesiari buruzko ipuina

Arte garaikide edo modernoko hainbat margolan, eskultura eta bestelako artelanen aurrean, maiz izaten dugu gisa horretako lanak, erakusten zaizkigunak bezain on eta ikusgarriak gutxienez, guk geuk ere aise egin genitzakeelako irudipena; edo ume batek, zoro batek, edonork. Orobat gertatzen da poesiarekin, poesia garaikide edo modernoarekin behintzat, poesia abangoardista hermetikoarekin.

Idea horrek sustatuta, pintura eta eskultura arloetan inoiz egin izan dut esperimenterik, eta, tira, ez dira zeharo gaizki atera horietako batzuk, baina teknika aldetik oso baldarra naiz, eta hori, bitxia badirudi ere, muga handia izan da niretzat. Horrelako esperimenteretan nekez geratzen baita bat lehen emaitzarekin guztiz konforme. Eta lehen emaitza horri aldaketak egiten hasteko garaian datoz komeriak.

Idazte lanetan, aldiz, teknika aldetik ez dut gisa horretako mugarik sentitzen. Horregatik, arte plastikoen arloan izandako zailtasunekin etsi samartuta, burura aurrenik etorritako hitzak alirizira konbinatu eta, neke handirik gabe, poema liburu osatzea otu zitzaidan behin, hots, poemario aizuna, poema aizun garaikide abangoardista moderno hermetikoz osatua, noski, aizuntasun hori igartzetik izan ez zedin. Liburu hura lehiaketa batera aurkeztu eta irabazle izatea litekeena zela ere pentsatu nuen, eta gero argitara eman eta poesiazaleen txalo eta gorazarreak jasotzerik ere izango nuela agian. Pinturan edo eskulturan baino aukera handiagoak nituen behintzat.

Baina burura aurrenik etorritako hitzak aliritzira konbinatzen hasita, konbinazio haiekin ez nintzen konforme gelditzen. Teknika aldetik horretarako mugarik ez nuenez, hitzak beste era batera ordenatzen nituen behin eta berriz, lerro osoak kendu, hitzak erantsi, lekuz aldatu, beste tonu batekin aproba egin... Harik eta hasieran aliritzira sortu eta azarearen esku utzitako poema aizuna, azkenean, neure gustura gelditzen zen arte. Orain poema aizun horiek diren bezala baino ezin ditut onartu: hitz bakoitza dagokion tokian dago; ez dago hitz bat ere soberan eta ez da inon ezein hitzik ments. Eta liburuak behar dituen poemak ditu, ez gehiago eta ez gutxiago. Zail izango nuke hitz, lerro, ahapaldi eta poema bakoitzaren zergatikoa eta esanahia zehatz-mehatz azaldu edo arrazoitzea, baina halaxe behar dute eta kito.

Lehiaketa aski garrantzitsua irabazi dut nire poema liburuarekin, eta argitaratu dudanean harrera ona izan du poesiazaleen artean.

Orain, jakina, haiekin horrenbeste lan eta ardura hartu ostean, ez ditut nire liburukoak poema aizuntzat jotzen, zinezko poematzat baizik.

2000ko maiatzak 18

Ez dakit jasango nukeen aberatsa izatea.

2000ko ekainak 29

Victor Jararen “Luchín” kantua entzun eta hunkitu egin nau. “Si hay niños como Luchín, que comen tierra y gusanos, abramos todas las jaulas pa que vuelen como pájaros.” Burgesegei sentiarazi nau kantuak, erosoegi mundu injustu honetan, eta inondik inora ere ez nukeela aberats okitu izan nahi pentasarazi, Victor Jararengandik gertuago behar dudala, Augusto Pinochetengandik urrunago... 3 minutu eta 14 segundo dirau kantuak.

* * *

Adiskidetasuna

Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.
Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.

Zuen beharra dudala
nik aitortzen dut.
Gorrotatzen zaituztedala
ezin ukatu dut.

Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.
Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.

Gorrotatzen zaituztedala
nik aitortzen dut.
Zuen beharra dudala

ezin ukatu dut.

2000ko abuztuak 14

Van Morienderren Tourmaleta

Theo Van Moriender ziklista apala izan zen, ospe eta aintza handirik gabekoa. Profesionalen mailan lau urte eman ondoren, ziklismoa utzi egin behar izan zuen, inork ez ziolako beste kontraturik eskaini. Garaipenik batere gabeko palmares kaskarraren jabe geratu zen lau urte itzaltsu samar haiek igaro ondoren.

Routier kankailu eta trakets samarra zen Van Moriender. Askoz hobeto moldatzen zen ordekan aldapan baino. Aldapan gora berehala heltzen zitzaion ezina. Ordekan indartsuago ageri ohi zen, baina ordekan ere ez zen inoiz indartsuena izaten, horixe zuen txarra.

Behin bakarrik izan zen Van Moriender Frantziako Tourrean. Azken orduko karanbola batzuen ondorioz egokitu zitzaion, ezustean, horretarako aukera. Hasieran ordezkoen zerrendan ere ez zuen zuzendariak haren izenik, baina, batzuen lesioak eta beste batzuen gaixoaldiak tarteko, Van Morienderrengana jo beste erremediorik ez zuen izan azkenean bederatzikoa osatzeko.

Ur banatzaile gisa ere ezin izan zuen askorik erabili Tourrean zuzendariak Van Moriender. Etapa laueta nahikoa lan eta neke zuen tropeleko –edo, tropela hausten bazen, azken taldeko– azkenurrenaren gurpilari lotuta joaten. Mendiko etapetan, berriz, *autobusari* ezin jarraiturik lehertzen zen, kontroletik kanpo ez heltzeko borroka latzea.

Zuzendariak ez zuen deus ere espero Van Morienderrengandik, eta ez zion hitzik ere egiten. Gainerako taldekide guztiei aholkuak eman edo zerbait agintzen zien afalorduan hotelean. Adoretzeko hitzak izaten zituen taldeko liderrarentzat, errieta ozpinak gehienetan gainerakoentzat. Van Morienderrentzat izan ezik. Van Moriender ez balego bezala jokatzeko, Van Moriender Tour hura lehiatzen ari ez balitz bezala. Van Moriender existituko ez balitz bezala.

Iraingarria eta amorragarria zitzaion Van Morienderri zuzendariaren jokabidea. Baina Tourra uztera bultzatu barik, Tourrean jarraitzera bultzatzen zuen amorruak Van Moriender. Zuzendaria izorratzeko besterik ez bazen ere, Tourraren amaieran gainerako ziklistekin batera Parisen izateko eginahalak egiteko prest zegoen, kostatuta ahala kostatuta; baita Frantziako errepideak izerdi, odol eta malkotan blai utzi behar baziren ere. Bazekien, gainera, huraxe zuela Tourra amaitzeko sekula izango zuen aukera bakarra, urte hartan ikusten ari zena ikusita zaila izango zelako ez bere zuzendariak eta ez beste inork hurrengo urteetan aukerarik ematea.

Ohi bezala, lasterketa Tourmaletetik pasatzen zeneko etapa gogorra zen oso. Aldez aurretik ere bazekien Van Morienderrek oso zaila izango zitzaizela helmugara kontrola itxi baino lehen heltzea. Tourmaleteko lehen aldapak nahikoa izan ziren Van Moriender bakarrik geratzeko, *cul de la course*, makalenei ere ezin jarraituta, erreferentzia gisa hartzeko gurpilik batere gabe.

“Aurrean inor ez nuela jabetu nintzenez, ikusleen etengabeko adore-oihuen artean, Tourmaleten gora lehena nintzela irudikatu nuen”, oroitzen du Van Morienderrek egun handi hura, “ihes eginda eta abantaila handiz, eta telebistako esataria ari zela nire igoeraren berri zuzenean ematen: ‘Denak harrিতuta utzirik, eta bere zuzendaria harrিতuen, Van Moriender erritmo ikaragarrian ari da igotzen Tourmaleteko mendatea...’ Neure burua irudimen gozo haren eskuetan abandonatuta, niregandik inork ezin espero zuen fedez, kemenez eta indarrez egin nuen gora. Errealitatea ahaztuta, amets batean murgildu nintzen, baina lo egin barik, pedalei eragiteari utzi gabe, modu

niretzat errepikaezin eta ia-ia ezinezkoan eragin ere... Tourmalet gainerako ehunka metro baino falta ez zirela itzarri nintzen, aurrean ziklista bat nuela ikusi nuenean, azkenurrena hain zuzen ere. Haren atzetik pasatu nintzen gailurretik, segundo gutxi batzuetara, eta gero, igoera gogoangarri eta sinestezin hari esker, artean ere kontrola zabalik zelarik heldu ahal izan nintzen helmugara, Tourmaleten nire aurretik heldutako ziklistarekin batera. Biharamunean utzi nuen Tourra, guztiz akituta nengoelako, baina ez zitzaidan axola izan. Banuen jada, neuretzat baino ez bazen ere, *neure Tourmaleta.*”

2000ko irailak 22

Aurki nork bere liburuxka izango du, bere dohain eta ezinen berri emateko, bere bertute eta akatsen deskripzioa modu erakargarrian bilduta eskaintzeko, bere ezinegon eta axolagabekeriaren zerrenda edonoren eskura izan dadin. Txukun egingo dituzte liburuxkok inprentek, ordenagailu eta teknika aurreratuez, eta hainbat eskaintza izango dira, bezeroaren ahalmen ekonomikoaren arabera mailakatuak. Argi azalduko dugu, azal eta mami, nor garen, zer eskaintzen dugun, zenbatean gauden salgai.

2000ko urriak 28

Ez du merezi idazteak munduko idazlerik onena ez izatekotan (ikus 1989-VII-29 eta gainerakoak). Batzuetan ez naizela iruditzen zait, badirela hobeak, ez dudala behar nukeena ematen. Urundu egin behar dudala sentitzen dut orduan, Jainko baten neurriraino; neure baitara barnebildu behar dudala sentitzen dut orduan, ezin esanezko barne-miseria beltz abisalenetaraino. Malcolm Lowry edo Jean Genet baino are beherago, bada oraindik ere –gezurra badirudi ere– zer aurkiturik, neure baitan, neure baitan bai behintzat.